

BEZERO KANALAK

Bezerekin komunikazioa internet bidez ematen da nagusiki, hala nola, web orri batean eta sare sozialetan. Telebista ere iragarkiak jarri ditugu.



Gure web orrialdeak gure produktuak zein diren azaltzen du, horiei buruzko informazioa emanaz eta haien berezitasunak adieraziz. Enpresaren informazioa ere agertzen da, adibidez, non egiten dugun lan, zergatik sortu genuen gailua, zer konpromezu hartzen dugun bezerekin... Sare-sozialetan ere iragartzen dugu gure produktua, enpresa kontu baten bidez. Bertan, guk sortutako gailuen argazkiak igotzen ditugu, eta pertsonalizatu daitekeenez, hainbat adibide daude. Bideoak ere ipintzen ditugu, gure produktua nola erabiltzen den eta nolako praktikotasuna duen erakutsiz. Enpresaren informazioa, web orrialdekoa bezalaxe azaltzen da gure sare sozialetan esteka baten bidez. Bertan klik eginez gure webgunera joan daitezten gure bezeroak.

Fisikoki ere gure produktua aurkezten dugu. Buzoietara bidaltzen ditugu gure produktuaren berri ematen duten “triptiko” modukoak, web orrialdean agertzen den informazioaren laburpen bat eginez. Gure telefonoa, helbidea, eta web orria agertzen dira, baita argazki eta ezaugarriak ere. Zertarako balio duen, nola pertsonalizatu eta abar laburrean idatzita daude, publizitate on bat eginez.

Publizitateari dagokionez, gure produktuaren salmenta telebista iragarkien bidez komunikatzen dugu. Telecinco eta EITB-ko kanaletan hain zuzen ere. Ikasleentzat produktu erabilgarria denez, hainbat *influencerri* gure produktuak ematen dizkiogu horri, haiek sare-sozialen bidez gure produktuaren berri emateko beraien jarraitzaileei. Publizitate horren truke, gure produktuak oparitzen dizkiegu haiek erabil ditzazten.

